

**2019ko KULTURA ONDAREA SARIA**

2019-06-12 Lehendakaritza 12-06-2019

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, sailburuorde, zuzendariok, Ikastetxeetako irakasle eta ikasleok, jaun andreok, arratsalde on eta eskerrik asko Kultura Ondarea Sarietan parte hartu duten Ikastetxe guztiei eta zorionak irabazleei.

Kultura Ondareak belaunaldi gazteen konpromisoa behar du bere etorkizuna bermatzeko. Zuen konpromisoa behar dugu gure Ondarearen aitortza eta zabalkundea ziurtatzeko.

Konpromisoari esker iraganaren eta etorkizunaren arteko **kultur HARI**aren **jarraipena bermatzen dugu**. Konpromisorik gabe, HARI hori apurtu egiten da. Konpromisorik gabe, garenaren zati bat, gure nortasunaren zati bat galdu egiten da.

Zuekin batera HARI horri sendo eusteko jaio ziren Kultura Ondare Sariak.

Urte hauetan zehar 2.700 gaztek parte hartu duzue eta 500 bideo baino gehiago sortu dituzue. HARI asko dira gure kulturaren ezagutza eta jarraipena bermatzeko.

Gaur zuen ahalmen sortzailea nabarmendu nahi dugu. Egin dituzuen bideoetan ikusi dugu. **Ikusi, entzun eta sentitu ere bai.**

Egia esanez, zuei esker eta zuekin batera, asko ikasi dugu. **Bost ikasketa aipatuko ditut:**

-Bat: Ondarearen **izaera anitzaz** jabetu gara. Ondarea ez baita mugatzen arkitekturaren edo arkeologiaren esparruetara. Ondare immateriala ere badugu: ahozko adierazpideak, usadio sozialak, gure kirolak, dantzak...

-Bi: Ondarearen **izaera bizi**z ohartu gara. Kultura ez da kutxa batean gordetzeko esentzia bat. Ondarea dinamikoa da eta gizartearekin batera aldatzen da, aberastu egiten da.

-Hiru: Ondarea duen **balioaz** konturatu gara. Gure nortasun berezia islatzen du. Euskadin jatorri askotako pertsonak bizi gara eta guztiak gara euskal kultura ondarearen oinordekoak.

He citado tres de los cinco aprendizajes: pluralidad, vitalidad, valor del patrimonio cultural...

-Cuatro: este proyecto nos ha mostrado la importancia de la **creatividad**. Hemos descubierto vuestra capacidad de imaginar y crear, de sorprender y comunicar.

-Quinto: este proyecto demuestra la importancia de la **innovación**. Habéis aprendido y lo habéis logrado a través del lenguaje audiovisual, de las nuevas tecnologías y del trabajo en grupo.

Merecéis este Premio por todas estas enseñanzas que hemos compartido. La enseñanza de la pluralidad, la vitalidad y el valor de nuestro patrimonio cultural. El aprendizaje de vuestras propias capacidades creativas y de innovación trabajando en equipo.

Este Premio es una invitación a mantener **estos valores y estas capacidades**.

Euskadik hori guztia behar du. Kultura Ondarearen HARI hori bizirik mantendu behar dugu. Horregatik:

-Zorionak **Europa Ikastetxea** ondare arkitektonikoaz erakutsi duzuen ikuspegi berritzaileagatik eta zuen lanaren kalitatearengatik;

-Zorionak **Lea Artibai Ikastetxea**. Bideoak ikusi gabe nituen eta gaur bertan goizean, Flandriako ministro presidenterekin hitz egin dut, bideo konferentzia baten bitartez, jakin izan banu berari erakutsiko nioke baino izango dugu aukera erakusteko Flandria aipatu egiten delarik. Dena den, Lea Artibai Ikastetxe, gure historiaren pasarte bat berreskuratzeko egin duzuen lanagatik; eta oroimen emozionalaren garrantzia hain era trebean azpimarratzeagatik; eta

-Zorionak **Ondarroako Institutua**, zorionak bi aldiz. Gure ondarea baliatuz eta balioetsiz, genero arrakalaren gaia mahai gainean jarri duzue. Horrekin batera, bideo ekoizpen ahalmen izugarria erakutsi duzue. Bejondeizuela!

Zorionak ikastetxe, irakasle eta ikasle guztioi.

Mantendu dezagun kultura ondarearen **HARIA sendo, indartsu eta bizi bizirik**.

Eskerrik asko eta arratsalde ona izan dadin dezazuela.